

EZTABAIDA FOROA 1

Koordinatzailea: Josu Etxaburu

ABIAPUNTUA

Antolakuntza HEZKUNTZA ARRAKASTAren zerbitzura egon behar luke. Helburu honek gidatu behar ditu ikastetxe mailako erabakiak.

Testuinguru honetan, badira aldagi batzuk arrakastan eragiten dutenak baina eskolatik kanpo kokatzen direnak.

Eztabaida foro honen helburua izango litzateke, ikastetxearen mailan kokatzen diren aldagaiak zeintzuk diren eta hauek hobetzeko zein aldaketak edo estrategiak ezarri behar ditugun aztertzea.

ANTOLAKUNTZAREN ZUTABE NAGUSIAK

1. Konpetentziak : gure ikastetxearen antolakuntza berorientatu beharko dugu. Orain arte erabili dugun antolakuntza ereduak behar bada ez die bete betean erantzuten hezkuntza xede berriei.
2. Antolakuntzaren marko orokorra: Hauek dira markoa osatzen duten arloak:
 - o Ingurune sozio-educatiboa: ikasleen ongizatean eragina duten aldagaiak eta ondorioz ikaslearen errendimendua baldintzatzen dutenak.
 - o Denboraren antolakuntza: Egutegiak, ordutegiak, saio lektiboen iraupena, ordu lektiboz kanpoko jarduerak(errefortzuak, prestakuntza ez formala,...).
 - o Irakas-ikas _____ metodologia: Norabide bakarreko irakaskuntza(ikaslea sujeta pasiboa) eredutik irakaskuntza partekatu(lan kooperatiboa) batera joan behar dugu.
 - o Gizarteak ikastetxeei ezartzen dizkion aginduak: gizarteak ikastetxeari ezartzen dizkion betebeharrak , gurasoek heziketa prozesuaren erantzukizuna ikastetxean delegatzea, Lehiakortasuna+ekitatea+arrakasta.
3. Antolakuntza sustatzeko tresnak: Ikastetxearen antolakuntzarako tresnak :
IHP, IPC, Kudeaketa Plana, Bizikidetzeta Plana, AJA, ...dira antolakuntza mailan ikastetxeak hartu dituen erabakien euskarriak. Hauek definitzen dute antolakuntzaren atal operatiboa eta etengabeko hobekuntza bermatzen joateko tresnak dira.

4. Ikastetxea gurea sentitu(afekzioa): Nahiz eta ikastetxearen antolakuntza ondo diseinatuta egon eta aukeratutako tresnak egokiak izan, irakasleen atxikipena ikastetxearen hezkuntza proiektuarekiko faktore eragile indartsua da.

IKUSPEGI OROKOR BATEN BEHARRA

Aurretik zehaztu ditugun antolakuntzaren aspektu desberdinek, guztiak SISTEMA bat osatzen dute eta IKASTETXEAREN PERTSONALITATEA perfilatzen duten ezaugarriak dira. Izan ere, atal bakoitzak ez du zentzurik sistema oso baten zati bat bezala ez badago definitua, ikastetxearen zeregina zati hauen loturak zehaztu gabe ez dagoen bezala.

Ikastetxe irekiak behar ditugu, ez soilik testuinguru formala zaintzen duena, ez formalaren eraginari erreparatzen ez diona.

EZTABAIDARAKO GALDETEGIA

1.-Nola eragiten du kompetentzietan oinarritzen den hezkuntza ereduak ikastetxeen antolakuntza pedagogikoan? Balio du oraingo mintegi didaktikoen eredua? Nola erabaki estrategia komunak, zeharkompetentziak arlo desberdinetatik lantzen direla bermatzeko?

2. Zeintzuk dira antolakuntzan aldatu beharko diren aspektuak hezkuntza xede berriei zuzen erantzuteko? Zeintzuk dira lehentasunezkoak?.

- Eskola denbora
- Irakas-ikasteko metodologia didaktikoa
- Irakasleen formazioa
- Kudeaketa sistema
- Espazioen eta baliabideen berantolaketa
- ...

3. Nola ulertzen duzu ikastetxearen lehiakortasuna? Nola erantzun bikaintasunari, ekitateari, aukera berdintasunari ? Bateragarriak al dira helburu guzti horiek?

4. Nola daukazue ikastetxean tresneria?: IHP, IPC, Kudeaketa Plana, Elkarbizitza Plana,...

5. Eman ezazu zure iritzia irakasle eta ikasleen afekzioaz ikastetxearekiko? Zein garrantzi ematen diezu harreman pertsonalei eta eskola klimari ?

Laburpen edo errepasso gisa:

6. Zeintzuk dira ikastetxe eraginkor baten aspektu klabeak?



EZTABAIDA FOROAREN EKARPENAK

Josuk eztabaida foroari hasiera eman aurretik, idatziz aurkeztutako agiria labur bildu du. Egindako sarreran, abiapuntua aipatu du: Antolakuntza hezkuntza arrakastaren zerbitzura egon behar da. Jarraian, antolakuntzaren zutabe nagusiak zerrendatu eta eztabaidarako galdetegia ere aurkeztu du. Partaidetza giroa eraginda eta aztergai posibleak airean utzi ondoren, txanda librea ireki eta jarraian bildutako adierazpenak azaldu dira:

- Nondik atera irakasleek formatzeko denbora? Ez da erraza aurrera egiteko, irakasleen prestakuntzarako orduak lortzea.
- Konpetentzien bidez ebaluatzeak uste baino aldaketa gehiago ekarriko ditu. Norbaitek egin behar du egokitzapen hau. Irakasle eta ikasleen bilbidea da garrantzitsuena. Irakasleek ofizialki dauzkagun orduetako (40) batzuk eman beharko genizkioke formakuntzari. Aldaketaren protagonista izan nahi badugu, zerbait gehiago egin behar dugu. Denboraren antolaketarekin ere aldaketak etorriko dira. Eskola 2.0 programarekin esate baterako, posible izango da asinkroniari esker, irakasgaien jarraipena edonondik egitea...
- Irakasleak prestatzeko, orduak baino garrantzitsuagoa da konbentzitzea prestakuntza beharrezkoa dutela. Beharrezkoa baita ikasitakoa gero ikasgelan martxan jartzea.
- Jauzi handia iruditzen zait gaurko errealitatetik ikusita, klase birtualak ematea. Irakasleria oraindik oso lotuta dago testuliburuari. Zaila da prestakuntza orduak ateratzea irakasleen permanentzia orduak ikastetxetan 23 badira. Kontraesana dago eta ondorioz, zailtasunak ikastetxetan formakuntza orduak lortzeko.
- Ikusten dut prestakuntzaren premia. Baina gaur egun, oso ikuspegi indibidualistatik ari da formatzen jendea. Ikastetxetik irakasleen prestakuntza planifikatzeko eragozpenak ikusten ditut.
- Plano bi ikusten ditut prestakuntzaren inguruan. Batetik plantilaren formazio denbora dela eta, ikastetxe bakoitzak ahal duena egiten du. Gure ikastetxean arrakasta handiena duten ikastaroak ordutegi barruan eta klaustrokideek emandakoak dira. Esate baterako, ikastetxe askotan moodle plataformaz ari dira baliatzen horretarako. Beste plano batean, jabetu egin behar gara denbora laburrera plantila aldaketa handia datorrela hezkuntzara eta Hezkuntza departamenduak irakasle berrien prestakuntza egokia ahalbidetu behar duela.

- Gakoa egiten dena konpartitzean dago. Zenbat eta gehiago adostu eta konpartitu, orduan eta emaitza hobekiago lortzen dira. Hobe aprobetxatu behar dira DAeko orduak. Beldurra galdu eta komunikazioa hobetu.
- Kalitate Hezkuntzan sisteman zeuden ikastetxeek ideiak eta agiriak konpartitu ahal izan dituzte, sarean lan eginez. Lan estilo hori berreskuratu behar da, gure arteko lankidetzan lanean sakonduz eta esate baterako irakasgaietako unitate didaktikoak ere sarean kokatu, trukatu eta elkar lana handituz.
- Komunikazioa, formazioa eta lankidetzan bai ikastetxe barruan, bai ikastetxe arteko trukaketan bidez ere ahalbidetu behar dira.
- Badira plastika moduko mintegi txikiak ere eta mota honetako irakasleen beharrezkoak zentrotan arteko lankidetzan sustatzea da, alegia, esperientziak, materialak eta abar trukatzeko. Horrelako foroak ere beharrezkoak dira.
- Oinarrizko koordinazio eta formazio lana ordutegi barruan kokatu behar da. Mintegi, tutore eta irakasleen bilera eraginkorrak egin daitezke goizean ere eta lanerako denbora hori ondo aprobetxatu. Arratsaldea ez-ohiko bileretarako utzi beharko litzateke.
- Intraneta eta helbide elektronikoak ere asko lagun dezake, irakasleek bilera aurretik ere informazio eguneratua eskuratu eta geroko bilera errazteko.
- Errazagoa da komunikazioa lortzea enpatia baino. Egun teknologia baliabideekin asko aurreratu da, baina giza-harremanak eta pertsonen hurbiltasuna lantzeko espazioa atseginak behar dira ikastetxeetan.
- Ikastetxe eraginkorra lortzeko eragozpen bat oinarrizko curriculumaren diseinuan bertan dago. Kontraesana dago zortzi oinarrizko konpetentzia planteatu eta gero, ebaluazioaren oinarria irakasgaia jartzearekin. Diagnostiko ebaluazioan ere matematikarako konpetentzia Matematika irakasgaietan baino ez dela landu behar planteatzen da.
- Mintegien egitura gaur egun beharrezkoa da, nahiz eta gaitzera jo behar dugun. Hala ere, aurreko ikasturtean egindako Diagnostiko Ebaluazioan ikastetxe gehienek emaitza politak lortu dituzte. Badirudi, beraz, jakin gabe ere, konpetentzietan trebatzen ari garela ikasleria.
- Hain txarra izan al da guk jasotako irakaskuntza? Orain konpetentzia sartu da eta badirudi orain artekoak ez duela ezertarako balio izan. Ez da neurritz gain baloratu behar konpetentzia.
- Argi dago ikasketa prozesuaren protagonista ikaslea izan behar dela eta irakasleok gure bitartekari jarduna ondo gauzatu behar dugula. Mintegi egitura ere neurri batean egokia da, baina edukiz ondo hornitu eta eraginkorragoa izatea lortu behar dugu.
- Antolakuntza eta egitura aldetik ikastetxe gehienak nahiko antzera ari garela uste dut, baina komunikazioan ikusten dut arazoa. Klaustroa

zahartzen ari da eta gazteak behar ditugu, berrikuntzetara irekiagoak eta aldaketarako animatuagoak.

- Gizartea aldatu ahala ikastetxea ere aldatuz joan behar da. Konpetentziak emonda datoz, baina aldatu beharrekoa antolakuntza da. Zuzendaritzatik plan estrategikoa, misioa, ikuspegia etab. landu zen moduan, mintegiek ere autonomia eta antolakuntza nahikoa izan behar dute aldaketara egokitzeko. Ikastetxeetan komunikazioaren alde informala lantzea ere oso lagungarria da harremanak hobetzeko.
- Arazoa ere duan dago. Komunikazioa antolatu eta egituratu egin daiteke, baina ereduak ez da antolatu behar mintegi egituraren oinarrituta. Ez dut ikastetxe baterako egoki ikusten espezializazioaren araberrako antolakuntza.
- Berritzeguneetatik ikusten den bezala, mintegi egitura desagertuz joan behar da... Konpetentzien arabera ebaluatu behar badugu eta ez irakasgaika, arlokako egitura berri bat sortu behar da.
- Mintegi edo departamentuak oraindik beharrezkoak dira, baita departamentu arteko koordinazioa ere. Kezkagarria da irakasle-taldearen - ikasle talde berarekin diharduen ekipoa- koordinazioa ebaluazio bileretan baino ez egitea edo arazoak daudenean. Hor badago antolaketan hobetu beharreko arlo bat.
- Esandako gauza askorekin nago ados: Mintegietako lana, konpetentzien lanketa, koordinazioa areagotzea, prestakuntza handitzea. Arazo bat ordutegiak ondo antolatzea da, baina hala eta guzti, irakasle batzuk ez dira batzarretara gustura joaten.
- Ertaintetako irakasle batzuen jokabidea da ikasle batekin arazoa edo eztabaida larria izanez gero, zuzendaritzara botatzea... Irakasleak beharrezko duen lehendabiziko gaitasuna elkarbizitza oinarriak argi izatea da eta gero antolakuntza.

Josuk azken ekarpenak motzean emateko eskatu du:

- Ikastetxe eraginkor baten klabeak: adostasuna, koordinazioa eta lankidetzak dira.
- Zuzendaritza iraunkorrak beharrezkoak dira.
- Klaustro egonkorak ere behar dira.
- Irakasleak zuzendaritzaren inguruan eta zuzeneko harremanean behar dira.
- Ikastetxea gizartean txertatuta egon behar da.
- Ikasleentzako gune ere izan behar da ikastetxea.
- Ikastetxe identitatea eta partaidetza landu behar dira.
- Ikastetxeen kudeaketa sistematizatu behar da.



- Denboraren banaketa egokia behar da: irakaslearen azalpenak eta ikasleen ekarpenak.

Josuk partizipazioa estimatu eta azaldutako iritzien laburpena egin du:

Irakasleen prestakuntza beharra; konpetentziak geuregana beharra; asinkroniaren ideia; formaziorako konbentzitu beharra; irakasleriaren erreleboa; Curriculumaren kontraesanak; teknologia eta komunikazio tresnak hobetu bai, baina benetako komunikazioa murriztu gabe...

Besterik gabe, Josuk forokideei eskerrak eman eta saioari amaiera eman dio.

2010eko Martxoan